

1. IDEIA:

Arroparekin lotutako enpresa bat sortu nahi dugu. Enpresa honen bitartez, bigarren bizitza bat emango diogu; arropa ekonomikoa, ingurunearekiko errespetua duena, eta enpresa masiboen botere esplotatzailea murrizten duena bultzatu nahi dugu.

Hori egiteko, "instagram" kontu baten bitartez, bezeroekin kontaktuan jarriko gara. Erabiltzen ez dituzten arropak salgai jarriko dituzte gure plataformaren bitartez, webgunea izango dena, eta handik bertatik guk salgai jarriko ditugu. Horrela, guk zein arropak eskaintzen dituztenak irabaziak izango ditugu.

Gainera enpresa honek gizarte erantzukizun korporatiboa betetzen du. Geroz eta larriago den klima aldaketaren aurrean zerbait egin behar dela argi daukagu, horregatik gure enpresaren bitartez ura kontsumoa eta energia erabilera murrizteko ahalegina egiten dugu. Horrez gain epe zehatz batean

saltzen ez diren arropak, GKE ezberdinetara bidaliko ditugu, horrela arropa hori betiere bigarren bizitza bat emanaz, bai ingurumenari bai gizarteari laguntza eskainiz.

Proiektu honekin gizarteak ezarritako hainbat konbentzio legeekin amaitu nahi dugu. Guztiok sufritu dugu noizbait "azken modara" joateko beharra, marka garestiak, lehen eskuko arropak... Gure enpresak aldaketa bat aldarrikatzen du, batez ere botere ekonomikoa enpresa esplotatzaileek gal dezaten.

